



## Laguntzarekiko garraio egokituaren zerbitzua.

**Prestazio mota:** Bermatua.

**Baliabide mota:** Arreta anbulatorioko zerbitzua.

**Baliabidearen xedea:** Garraio egokitua eta/edo laguntza pertsonalekikoa eskaintzen duen zerbitzua, mendekotasuna duten pertsonentzako zerbitzu eta programa bermatuetara joatea errazteko.

**Onuradunak:** Mendekotasuna duten pertsonak.

**Jasotzeko baldintzak:**

- III. graduko mendekotasuna aitortua izatea (mendekotasun handia), 1. edo 2. mailakoa, edo II. graduko mendekotasuna (mendekotasun larria), 2. mailakoa.
- Mendekotasuna duten pertsonentzako zerbitzu edo programa bermatu batera joatea, egoitzakoak salbu.
- Eskaera egin aurreko bi urteetan Nafarroan benetan eta jarraian bizi izan dela frogatzea edo, Espainiako beste toki batetik etorritakoa denean, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezartzen diren irizpideak betetzea.
- Banakakoaren Arreta Programan (BAP) esleitutako baliabidea.

**Zerbitzua irekita:** Urteko egun guztiak.

**Zerbitzuaren intentsitatea:**

- Gutxieneko maiztasuna: garraioa astean bi aldiz egitea.
- Gehienerako maiztasuna: garraioa egunean bi aldiz egitea.

**Emateko epea:** Hiru hilabete.

**Ordainketan parte hartzea:** Bai.

**Jarduteko eremua:**

Nafarroako Foru Komunitatea.



---

---

---

---

---

---

---

---